



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales/as:

EH-Bildu

Andoni Alvarez Lete
Estibalitz Mujika Tolaretxipi
Jon Zulueta Berastegi
Garazi Usandizaga Zubiria
Julian López Aracama
M^a Teresa Etxeberria Arteun
Xabier Fondón Pajares

PSE-EE

José Luis Verdasco Gutierrez
Ascensión Parrón Peguero
Petra Romero Pozo

EAJ-PNV

Maria Jose Izagirre Iturzaeta
M^a Sagrario Ruiz Fernández
Imanol Goenaga Egibar

Elkarrekin Podemos M^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000004
Eguna	2023/03/30
Hasiera	19:00
Amaiera	20:05

Idazkaria:

María Uriarte Zurikarai

Interpretaria

Jon Unanue López

Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:

Oscar Mendo González - PSE-EE: Bere botoa José Luis Verdasco Guitierrez jaunaren alde ordezkatu du.

Alexander Huitzi Alfonso - EAJ/PNV.

Gai Zerrenda:

- 2023/02/23an egindako batzarraren aktaren zirriborroa irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

- Ordenantza fiskalen aldaketa (hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga eta Zerbitzu Publikoak eskaini edo jarduera administratiboak burutzeagatiko eta Musika Eskolako Tasak).
- Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena onartzea.
- 2024 eta 2025 urteetarako konpromiso-kreditua onartzea, Ziako errekaostaren saneamendu-lanak eta uholdeen aurkako defentsa lanak egiteko hitzarmenaren barruan.
- Onartzea Ura-Ur Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Andoingo Udalaren arteko hitzarmena Ziako erreka bideratze eta saneamendu proiektuaren obrak egiteko (1.Fasea).

Orden del Día:

- Lectura y aprobación, si procede, del borrador del acta de la sesión celebrada el 23/02/2023.

Parte Dispositiva

- Modificación ordenanzas fiscales (Impuesto sobre el Incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana y Tasas por prestación de servicios públicos o realización de actividades administrativas y Escuela de Música).
- Aprobación propuesta de reconocimiento extrajudicial gastos.
- Aprobación compromiso de crédito para 2024 y 2025 dentro del convenio para la ejecución de las obras de saneamiento y defensa contra inundaciones de la regata Ziako.
- Aprobación Convenio entre Ura-Agencia Vasca del Agua, Diputación de Gipuzkoa y Ayto. de Andoain para la ejecución de la 1ª fase de las obras de saneamiento y defensa contra inundaciones de la regata Ziako.



- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> 6. Andoingo Krafft 37 HEAko 37.1 JT-ko xehetasun-azterlana behin betiko onartzea. 7. Lanpostuen zerrendaren aldaketa. 8. Bastero Kulturgunearen, Ondarreta kalearen eta Kale Nagusiaren artean dagoen espazio publikoa “Plaza Morea Andreurdiñarena” izendatzea. 9. Andoingo hautagaitza onartzeko mozioa, Haurren Hiri Lagun gisa aitortzeko deialdian parte hartzeko, hautagai gisa, onartzeko proposamena. 10. Andoingo hautagaitza onartzeko mozioa, Haurren Hiri Lagun gisa aitortzeko deialdian parte hartzeko, aitortu gisa, onartzeko proposamena. 11. 2023/609 zenbakiko Alkatetzaren Ebazpena berrestea. | <ul style="list-style-type: none"> 6.- Aprobación definitiva del Estudio de Detalle de la AI. 37.1 de la AIU 37 Krafft de Andoain. 7.- Modificación de la Relación de Puestos de Trabajo. 8.- Declaración del espacio público comprendido entre Bastero Kulturgunea, Ondarreta kalea y Kale Nagusia como “Plaza Morea Andreurdiñarena. 9.- Propuesta de aprobación de la moción de la candidatura de Andoain para concurrir a la convocatoria de Reconocimiento como Ciudad Amiga de la Infancia como candidato. 10.- Propuesta de aprobación de la moción de la candidatura de Andoain para concurrir a la convocatoria de Reconocimiento como Ciudad Amiga de la Infancia como reconocido. 11.- Ratificación de la Resolución de Alcaldía nº 609/2023. |
|---|--|

Kontrola

- 12. Ebazpenen berri ematea, zehazki, 293/2023 zenbakidunetik 553/2023 zenbakidunera.
- 13. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Parte de Control

- 12.- Dar cuenta de las Resoluciones comprendidas entre la nº 293/2023 y la nº 553/2023.
- 13.- Ruegos, preguntas y propuestas.

Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eraten da.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta mila esker gurekin izateagatik. Gaur izango dugu 2023ko martxoaren 30ean egingo dugun plenoa.

“Decíamos que buenas tardes y bienvenidos a todas y a todos al pleno del 30 de marzo del 2023.

“Hasi baino lehen komentatzea, Óscar Mendo zinegotzi jauna bajaran dagoela eta horrexegatik bere bozka Jose Luis Verdasco zinegotzi jaunarengan ordezkatzan du.

“Decíamos, antes de comenzar, que el concejal D. Oscar Mendo está de baja y en consecuencia su voto se traspassa al concejal D. José Luis Verdasco.

“Hau esanda, hasiera emango genioke gaurko udal batzarrari.”

1. 2023/02/23an egindako bileraren akta irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Lehendabizi, 2023/02/23 datako batzarraldiari dagokion akta aztertzeari ekin zaio, eta inork ezer adierazi ez duela kontuan harturik, onartutzat eman da.

2. Ordenantza fiskalen aldaketa (hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga eta Zerbitzu Publikoak eskaini edo jarduera administratiboak burutzeagatiko eta Musika Eskolako Tasak).

Konstituzioko 140. artikulua udalerrii aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarrii buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerrii bere burua antolatzeke ahalmena aitortzen die.



Ikusirik Hezkuntza eta Kultura Batzorde Informatzaileak 2023/03/01eko bileran emandako aldeko irizpena.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2023/03/21eko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Alde batetik, esan bezala, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren ordenantza fiskala ekartzen dugu berriro, batez ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak zenbait koefiziente aldatu dituelako eta horrexegatik egingo dugu eguneraketa.

“Respecto a la ordenanza fiscal del impuesto sobre el incremento del valor de los terrenos de naturaleza urbana o plusvalía, indicar que se han hecho unas actualizaciones y unos reajustes, a raíz de los cambios y las actualizaciones propuestas por la Diputación Foral de Gipuzkoa.”

Jarraian, Ruiz andreak, hezkuntza eta kultura zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztiei. Musika Eskolako tasei buruz, esan azkenean erabaki dela proposatzea mantentzea iazko kriterioa, hau da, ehuneko bia.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Ordenantza fiskalak aldatzeko proposamena onartzea, hasierako izaeraz eta datako ondorioekin. Aldatzen diren ordenantzak honakoak dira:

6.- Hirilurren Balio-Gehikuntzaren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskala.

VI. Eranskina

Hiri izaerako lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zerga.

6.- Hiri izaerako lursailen balioaren gehikuntzaren gaineko zerga			
6.- Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana.			
Sorreraldia Periodo de generación	de	Koefizientea Coeficiente	Sorreraldia Periodo de generación
			Koefizientea Coeficiente
Urtebetetik behera Inferior a 1 año		0,15	
Urte bat / 1 año		0,15	11 urte / 11 años
2 urte / 2 años		0,14	12 urte / 12 años
3 urte / 3 años		0,15	13 urte / 13 años
4 urte / 4 años		0,17	14 urte / 14 años
5 urte / 5 años		0,18	15 urte / 15 años
6 urte / 6 años		0,19	16 urte / 16 años
7 urte / 7 años		0,18	17 urte / 17 años
8 urte / 8 años		0,15	18 urte / 18 años
9 urte / 9 años		0,12	19 urte / 19 años
10 urte / 10 años		0,10	20 urte edo gehiago / Igual o 20 años
* Karga-Tasa: %12,75ekoa/Tipo de gravamen: 12,75%			

7.9.- Udal Musika Eskola



7.9.- Udal Musika Eskola 7.9.- Escuela Municipal de Música	
I. Maila / Nivel I	
Tailerra / Taller	231,07 €
II. Maila / Nivel II	
Funtsezko irakaskuntza + musika hizkuntza Enseñanza principal + Lenguaje musical	531,33 €
Funtsezko irakaskuntza + talde orokorrak (parte hartzeko talde mugarik gabe) Enseñanza principal + grupos generales (sin limitación de número de grupos en los que participe)	461,00 €
Funtsezko irakaskuntza + musika hizkuntza + talde orokorrak (parte hartzeko talde mugarik gabe) Enseñanza principal + lenguaje musical + grupos generales (sin limitación de número de grupos en los que participe)	691,03 €
Funtsezko Irakaskuntza / Enseñanza principal	395,15 €
Funtsezko Irakaskuntza (Abesbatza) Enseñanza principal (Coro)	181,65 €
Musika hizkuntza / Lenguaje Musical	277,99 €
Musika hizkuntza + Funtsezko Irakaskuntza (Abesbatza) / Lenguaje Musical + Enseñanza principal (Coro)	383,04 €
III. Maila / Nivel III	
Funtsezko Irakaskuntza + talde orokorrak (parte hartzeko talde mugarik gabe) Enseñanza principal + grupos generales (sin limitación de número de grupos en los que participe)	461,00 €
IV. Maila / Nivel IV	
Talde orokorrak (parte hartzeko talde mugarik gabe) Grupos generales (sin limitación de número de grupos en los que participe)	158,46 €
Banda	Salbuetsita Exento
Osagarriak (III eta IV mailak) / Complementarias (Nivel III y IV): Mindfulness	93,64 €

II. Maila: Funtsezko irakaskuntza (musika tresna, kantua edo tresnarantz edo kanturantz orientazioa) eta honi dagokion praktika (tresna edo kantua) eta musika hizkuntza.

III. Maila: Funtsezko irakaskuntza (musika tresna edo kantua) eta honi dagokion praktika (tresna edo kantua).

IV. Maila: tresnarantz edo kanturantz taldea.

III. eta IV. Mailako taldeak: ganbera, konboak, orkestrak, abesbatza, banda.

Salbuespenak.

- Musika Hizkuntzan bakarrik matrikulatzeko, ezinbesteko baldintza izango da eskatzaileak jotzen duen funtsezko irakaskuntza Udal Musika Eskola honek ez duela eskaintzen ziurtatzea.



- Funtsezko irakaskuntzan bakarrik matrikulatzen kasu berezietan besterik ez da onartuko, behar bezala arrazoituta dagoenean eta dagokionak horri buruzko txostena egin ondoren.
- Funtsezko irakaskuntza abesbatza denean, gai honetan bakarrik matrikulatzen uzteko, hizkuntza musikaleko oinarritzko maila bat erakutsi beharko da eta Eskolan eskaintzen diren gainontzeko gaietan inongo interesik ez edukitzea.
- Funtsezko irakaskuntza ikasketak udalerritik kanpo egiten dituzten ikasleei kuotaren %50eko dirulaguntza emango zaie, beti ere Andoingo Udal Musika Eskolak funtsezko irakaskuntza horren ikasketarik eskaintzen ez badu, eta 4 ikasturteko epe mugarekin.

Ikasle indartuak

Baldintza hori betetzen duten ikasturte horretan, ordaindu beharreko tasaren %75aren gehikuntza izango dute indartutako ikasgaietan.

Hobariak

1.- Familia ugariak:

- Kategoria orokorra 3 seme-alaba arte %30a
- Kategoria orokorra 4 seme-alaba %50a
- Kategoria berezia %80a

2.- Famili bereko ikasleak:

- Udal Musika Eskolara doan familia-unitate bereko edo elkarrekin bizitzen diren bigarren partaidea duen 1. matrikulan %15a.
- Udal Musika Eskolara doan familia-unitate bereko edo elkarrekin bizitzen diren hirugarren eta hurrengo partaideek duten 1. matrikulan %25a.

3.- LGSra iristen ez diren 65 urtetik gorako ikasleak:

- %30eko hobaria izango dute.

Gutxienek musika tresnak:

- Metalezko musika tresnetan matrikulak (tronpetak izan ezik), lehenengo bi ikasturteetan %30eko hobaria izango du.
- Langabezia dagoen ikaslegoari eta tresna hauetako batetan matrikulatzen bada, %70 hobaria emango zaio.

39/2015 Legearen 28. artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikuluan eta 38/2003 Legeko 14. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Andoingo Udalak, interesdunak horren aurka egiten ez badu, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren eta Gipuzkoako foru Aldundiaren erregistroetan eta NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez, hobariak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzuen egiaztatze behar den informazioa kontsultatuko du zuzenean eta, bereziki, honako datu hauek: familia ugari titulua; langabetu bezala izen-emanda egotea eta aurreko urteko errenta aitortpenaren datuak.

2016ko apirilaren 27ko Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21 artikularekin bat etorritik, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, aurka egiteko arrazoiak adieraziz; eta kasu horretan, udalak dagokion agiria aurkeztera behartu ahal izango du.

Udalak, edozein unetan, eskatzaileak hobariaren oinarri den baldintza galdu duela egiaztatzen balu, pertsona horrek hobari hori automatikoki galduko luke.

Hobari hauek ez dira bateragarriak.

Ordainketak

- Ordainketa: **50,00 €** izena ematerakoan. onarpenaren berri ematearekin batera. Matrikularen epea bukatu aurretik baja aurkezten ez baldin bada, diru hori **berreskuratzeko eskubidea galdu egiten da.**
- Gainontzekoa ikasturtean zehar, 9 hilabetetan.

Bajak:

Ikasturtea hasi eta 7 egun naturalen epean baja eskaera idatzia aurkezten bada, izena ematearengatik



ordaindutako 50,00 €-ak bueltatuko dira.

2023ko irailaren 29a baino lehen baja emateko eskaera idatzia aurkezten bada, hurrengo hilabetean jarriko da indarrean. (2023ko irailako kuota ordaindu egin beharko da).

2023ko urriaren 2tik aurrera baja eskaera idatzia aurkezten bada, hilabete horretako eta ondorengo kuotak ezeztatzea edo, dagokionean, itzultzea onartuko da, honako kasu hauetan bakarrik, eta gainera, idatziz eskatu beharko da, kasuari dagokion ziurtagiria erantsiko delarik.

- Lan baldintzen aldaketak (ordutegia, lekua, lanbidea... enpresaren ziurtagiri bidez).
- Familia baldintzen aldaketa.
- Araututako ikasketa baldintzen aldaketa (ordutegia, lekua... ikastetxearen ziurtagiri bidez).
- Osasun arrazoiak (mediku edo profesionalaren ziurtagiri bidez).
- Ikasketa arrazoiak (tutore edo ikastetxearen ziurtagiria)
- Herrikanporo bizitzera joan izatea (errola ziurtagiri bidez).

Baja eskaera kontuan hartzeko, idatziz aurkeztu beharko da, eta aurkeztutako hilaren hurrengoan jarriko da indarrean. Baja aurkezten den hilabeteko kuota ordaindu egin beharko da.

Ordainketetako atalean kuota guztiak ordaintzen ez dituzten ikasleek hurrengo ikasturteko matrikula berria egiteko eskubidea galduko dute.

Indarraldia:

Tasa hauek **2023/2024 ikasturtean** egongo dira indarrean

2.- Administrazio-espeditentea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, probintzian hedapen handiena duen egunkarian argitaratuz eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsiz, 30 eguneko epeaz, interesadunek espeditentea aztertu eta egoki iriztitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espeditentea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

3. Gastuak judizioz kanpo aitortzeko proposamena onartzea.

Kontuan hartuz, oro har badakigu sektore publikoa osatzen duten administrazio desberdinen artean, tokiko administrazioa dela herritarrengandik gertuen dagoena eta, hortaz, administrazio honetara zuzentzen dituztela, lehenik eta behin, beren eskaerak.

Tokiko Administrazioak herritarrek eskatzen duten arintasunera eta eraginkortasunera egokitu behar du bere jarduna. Horregatik, zenbaitetan, eta herritarrei erantzuteko, jarduera administratiboa ez da doitzen, zorrotz-zorrotz, berez zurruna den prozedura legalera.

Zentzu horretan, aurreko ekitaldian, zenbaitetan ondasunen hornidurari eta zerbitzuen prestazioari dagozkien gastuak egin dira, guztiak udal zerbitzu desberdinen garapen arrunterako eta Udalak kudeatutako zerbitzuen prestaziorako behar-beharrezkoak eta ezinbestekoak.

Aurrekontu-kreditu nahikorik gabe gauzatu badira ere, Udala aipatu gastuak ordaintzera behartuta dago, horiek udal aurrekontura egotzi ondoren. Legegileak berak, ezinbesteko zerbitzuak emateko beharrezkoak diren baina nolabait ere “irregularrak” diren jarduera horiek ematen direla jakinik, aipatu gastuak dagokion ekitaldiko aurrekontura egozteko aukera aurreikusten du. Egozpen hori, hasiera batean, debekatuta dago, aurrekontuaren urtekotasunaren printzipioari jarraiki, baina kredituen judizioz kanpoko aitorten espeditentearen bidez izapidetzea ahalbidetzen da.

Kontuan izanik administrazioarekiko kaltetzea saihesteko eta, hortaz, administrazioaren aberaste bidegabe edo arazoigabea saihesteko, ezinbestekoa eta derrigorrezkoa dela egindako gastu horiek ordaintzea; kontuan izanik, halaber, gastuak egungo ekitaldira egozteak.

Kontu-hartzaileak (2023/05 erref.) 23.03.16an egindako txostena ikusi ondoren

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2023/03/21eko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Dakizuenez, zenbait faktura, aurreko ekitaldia egindako gastuei lorturikoak gelditzen dira



ordaintzeko, bere garaian egotzi ez zirenak. Kasu honeta, 30.228,96 euro izango lirateke.

“Decíamos que en este caso es la imputación al presupuesto corriente de los gastos llevados a cabo en el ejercicio anterior, no imputados en su momento, que en este caso serían por importe de 30.228,96 euros.

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Aurreko ekitaldian egindako gastuak, bere garaian egotzi ez zirenak, aurrekontu arruntera egozteko KREDITUAK AURKEZTEKO espedientearen instrukzioa egitea. Zenbatekoa, guztira, 30.228,96 eurokoa da, honela banakatuta:

Espediente zenbakia Numero de expte	Faktura data Fecha factu	Reg. Data Fecha reg.	Hirugarrena Tercero	Arduraduna Responsable	Zenbatekoa Importe
2022-FAKT-004660-00	14/10/2022	18/10/2022	OSATU S COOP	Kiroldegia	874,83
2022-FAKT-005196-00	21/11/2022	21/11/2022	ADUR EKINTZA KULTURALAK SLL	Enplegua	599,50
2022-FAKT-005992-00	03/08/2022	14/02/2023	CECILIO MARTIN TAPICERIA Y COLCHONERIA	Kiroldegia	418,66
2022-FAKT-005993-00	08/11/2022	14/02/2023	MAQUINZA	Zerbitzuak	237,24
2022-FAKT-005994-00	30/09/2022	28/02/2023	KAIKU KM0 SL	Gizarte	177,06
2022-FAKT-005995-00	30/11/2022	28/02/2023	KAIKU KM0 SL	Gizarte	177,06
2022-FAKT-005996-00	22/09/2022	28/02/2023	CMGIPUZKOA	Hirigintza	490,29
2022-FAKT-005997-00	17/09/2022	28/02/2023	JULIAN MIGUEL ANDRES ELVIRA	Gizarte	600,26
2023-FAKT-000193-00	29/12/2022	10/01/2023	ASMATU SL	Zerbitzuak	17.824,50
2023-FAKT-000225-00	30/12/2022	16/01/2023	ERAGIN STAC SL	Kultura	5.576,91
2023-FAKT-000573-00	19/07/2022	10/02/2023	TECHNOGYM TRADING SA	Kiroldegia	161,16
2023-FAKT-000574-00	10/05/2022	10/02/2023	TECHNOGYM TRADING SA	Kiroldegia	1.851,53
2023-FAKT-000575-00	27/04/2022	10/02/2023	TECHNOGYM TRADING SA	Kiroldegia	497,67
2023-FAKT-000577-00	26/04/2022	10/02/2023	TECHNOGYM TRADING SA	Kiroldegia	742,29
					30.228,96

A	Ez da kontratu txikia, du jarraitu prozedura
B	Ez dago krediturik aplikazioan
C	Ez dago pleguan sartuta, kontratutik kanpo. Ezinezkoa da
D	CB
E	Epez kanpo
F	Arazoa hitz egin da hirugarrenarekin eta ez da konpondu (zenbatekoa, kontua ..)
G	Balidazioa falta zen/arazoak balidatzailea jartzerakoan

4. 2024 eta 2025 urteetarako konpromiso-kreditua onartzea, Ziako errekaostaren saneamendu-lanak eta uholdeen aurkako defentsa lanak egiteko hitzarmenaren barruan.

Kontuan hartuz udal honen, Ura Ur Agentziaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean sinatu beharreko hitzarmena, Ziako errekaostaren saneamendu lanak eta uholdeen aurkako defentsa egiteko.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzorde Informatzaileak 2023/03/23ko bileran emandako aldeko irizpena.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2023/03/24ko bileran emandako aldeko irizpena.

Verdasco jaunak, hirigintza, obra, ingurumen eta landaguneko zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, muy buenas tardes. El compromiso que adquiere el ayuntamientos para financiar concretamente un nuevo tramo de abastecimiento que se va a realizar desde Super Amara hasta el parque Martin Ugalde. Dicha financiación se recoge dentro del convenio que el ayuntamiento tiene previsto firmar con la Agencia Vasca del Agua y Diputación Foral de Gipuzkoa, comprende la financiación en dos ejercicios a razón de, en el ejercicio 2024, 195.000 euros, y en el ejercicio 2025, 195.567, 60 euros.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:



1.- 2024 eta 2025erako konpromiso-kreditua onartzea:

Urtea / Año	Aplikazioa / Aplicación	Kopurua /Importe
2024	5 0200.627.161.00.01.2024	195.000,00 €
2025	5 0200.627.161.00.01.2025	195.567,60 €

5. Onartzea Ura-Ur Agentzia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Andoingo Udalaren arteko hitzarmena Ziako errekaen bideratze eta saneamendu proiektuaren obrak egiteko (1. Fasea).

Ikusirik Ura Ur Agentziarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatu beharreko lankidetzahitzarmena, Ziako erreka-stoaren saneamendu- eta ubideratze-proiektuan jasotako obrak egiten laguntzeko konpromisoa hartzeko baldintzak arautzeko (1. fasea).

Ikusirik udal arkitektoak 2023ko martxoaren 16an egindako txostena.

Ikusirik behin-behineko idazkariak 2023ko martxoaren 21ean egindako txostena.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Batzorde Informatzailearen 2023ko martxoaren 23ko irizpena.

Verdasco jaunak, hirigintza, obra, ingurumen eta landaguneko zinegotzi ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“El convenio en cuestión viene a recoger la financiación del proyecto de saneamiento y de encauzamiento de la primera fase de la regata Ziako. Los compromisos que asumen son, por parte de URA la financiación del 100% del encauzamiento y el 60% del saneamiento, que viene a ser un montante superior a 17 millones de euros. La Diputación Foral de Guipúzcoa financia del 40% del saneamiento, que viene a ser un importe superior a cuatro millones de euros, y el ayuntamiento financia la parte correspondiente al abastecimiento que anteriormente hemos aprobado, el crédito de compromiso, por un importe superior a 390.000 euros.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

Lehema: Onartzea, Andoingo Udala, Ura Ur Agentzia eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean proposatutako lankidetzahitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: arautzea zer baldintzatan hartuko duten lankidetzan aritzeko konpromisoa Ziako errekaen bideratze eta saneamendu proiektuaren 1. faseari dagozkion obren exekuzioa.

Iraupena: sinatzen denetik eta jarduketa gauzatzeko kontratazioaren likidazioa eta ordainketa egin arte iraungo du, gehienez ere lau urtez hasiera batean.

Bigarrena: Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena Andoingo udalaren izenean eta ordezkartzan sina dezan.

Hirugarrena: Hartutako erabakia Ura Ur Agentziari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez eta, halaber, hitzarmena bidaltzea telematikoki.

6. Andoingo Krafft 37 HEAko 37.1 JT-ko xehetasun-azterlana behin betiko onartzea.

Alkatetzak, 2021eko martxoaren 18ko 514/2021 Ebazpenaren bidez, hasiera batean onartu zuen BI-ren xehetasun-azterlana. Andoingo 37 Krafft HIEaren 37.1 artikulua, Sestra Ingeniería y Arquitectura enpresak 2020ko urtarrilean idatzia eta Lautabi Sustapenak SLk 2020ko otsailaren 14an Udal honetan aurkeztua, baldintza honekin: dokumentua behin betiko onartu aurretik, xehetasun-azterketaren CDa aurkeztu beharko dute (formatu digitala eta PDFa).

Ebazpena eskatzaileari eta eraginpeko gainerako jabeei jakinarazi zitzaizen eta espedientea jendaurrean jarri zen 2021eko apirilaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (64. zk.), Udaletxeko



iragarki-oholean eta 2021eko apirilaren 10eko Gara eta Diario Vasco egunkarietan argitaratuz, interesdunek egoki iritzitako alegazioak egin zitzen.

Ebazpena eta dokumentua URA-Uraren Euskal Agentziara eta ADIFera bidali ziren, beharrezko txostenak egin zitzen.

Jendaurreko erakustaldian alegazio bat egin zuen Naiara Erauso Sanz andreak, Krafft SL merkataritza-sozietatearen izenean eta ordezkartzan, Udalbatzako idazkaritzak 2021eko maiatzaren 21ean emandako ziurtagiria adierazten den bezala.

2021eko martxoaren 30ean jaso zen Udal honetan ADIFek emandako aldeko txostena.

2021eko apirilaren 28an, Udaleko euskara-teknikariak hizkuntza-inpaktuari buruzko txostena egin zuen, eta honako hau adierazi zuen: “Kasu honetan, jarduera ekonomikorik ez da izango momentuz eta hobekuntza lanak egingo dira industria horretan, guztira 25.386 m²-ko azalera duen industria-eremuan, hain zuzen ere. Daturik ez daukagu momentuz eskuartean eta hala dagokionean, jarduera ekonomikoak izendatzean ekingo zaio hizkuntzaren inpaktua neurtzeko azterketa”.

2021eko uztailaren 2an, Abiazioko Zuzendaritza Nagusiak emandako aldeko txostena jaso zen udal honetan, zortasun aeronautikoei buruzkoa.

2021eko irailaren 23an, URA-Uraren Euskal Agentziak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostenak jaso ziren Udal honetan. Txosten horietan, dokumentazio gehigarria aurkezteko eskatzen zen.

2021eko abenduaren 2an jaso genuen Udal honetan Gipuzkoako Urakek egindako txostena, bere titulartasuneko hornidura- eta saneamendu-sareen baliabide eta azpiegitura nahikoei buruzkoa, AI eremuan aurreikusitako hirigintza-garapen berriari zerbitzu emateko. 37.1.

2022ko apirilaren 29an, Lautabi Sustapenak SLk jendaurreko erakustaldian egindako alegazioei buruzko txostena eta xehetasun-azterlan berria aurkeztu zituen. Azterlan hori 2022ko apirilean idatzi zuten Jaime Carretero arkitektoak eta Edorta Alonso abokatuak, behin betiko onartzeko.

Udal arkitektoak 2022ko abenduaren 14an egindako txostena ikusita, 2023ko urtarrilaren 4an, xehetasun-azterlanaren sustatzaileari ofizioa bidali zitzaion, azterlanaren zenbait alderdi zuzentzeko eskatuz.

2023ko otsailaren 17an, URA-Uraren Euskal Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostenak jaso ziren Udal honetan, eta xehetasun-azterlana onartzeko baldintza bat jarri zen: eremuaren saneamenduaren eta arazketaren irtenbide gisa, Uraren Euskal Agentziaren eta Andoingo kolektore nagusiarekin eta Uraldeko HUArekin lotuko den saneamenduko kolektore-etengailuarekin duen lotura onartzea. Txosten horiek 2023ko martxoaren 9an igorri zitzaizkion Lautabi Sustapenak SLri.

2023ko martxoaren 8an, Andoingo 37- Krafft HIEren 37.1 HIEren xehetasun-azterlana aurkeztu zen udal honetan, 2023ko martxoan Sestra Ingeniería y Arquitectura SLk eta Edorta Alonso abokatuak idatzia, behin betiko onar zedin.

Ikusirik udal arkitektoak 2023ko martxoaren 15ean, hirigintza eta zerbitzuetako administrazio orokorreko teknikariak 2023ko martxoaren 20an eta behin-behineko idazkariak 2023ko martxoaren 21ean egindako aldeko txostenak.

Ikusirik, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagune Batzordearen 2023/03/23 datako irizpena.

Verdasco jaunak, hirigintza, obra, ingurumen eta landaguneko zinegotzi ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“El estudio de detalle en cuestión se aprobó con carácter inicial el 18 de marzo de 2021. Se



sometió a información pública en abril del mismo año, durante ese plazo de exposición pública, se recibió una alegación, la cual fue remitida al al equipo redactor y analizada. Fruto de esa alegación, se remitió un nuevo estudio de detalle al ayuntamiento para su aprobación definitiva el pasado 8 de marzo. Indicar que durante este periodo se han recabado los informes favorables de las administraciones sectoriales y los informes favorables de los técnicos municipales. Por tanto, la propuesta para aprobar es estimar parcialmente la alegación que se formuló y aprobar con carácter definitivo el estudio de detalle.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak, proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Naiara Erauso Sanz andreak, Krafft SL merkataritza-sozietatearen izenean eta ordezkartizan jardunez egindako alegazioak zati batean onestea proposatzen da; zehazki, honako alegazio hauek baiesten dira:

- Eremuaren egungo egoera maila informatiboan islatzeko beharra
- Bideen egoera iragankorra islatzeko beharra, 49 Igerategi HEA garatzen den bitartean.
- Aurkeztutako xehetasun-azterketak, memoriaren 10. puntuan, eremuko urbanizazio-irizpideak jasotzen dituen atal bat duenez, egokitzat jotzen da euri-uren eta ur beltzen instalazioen egokitzapenaren aurreikuspena sartzea aipatutako 10. atalean (Memoria urbanizatzeko irizpideak).

2.- Ezestea Naiara Erauso Sanz andreak Krafft SL merkataritza-sozietatearen izenean eta haren ordezkari gisa egindako gainerako alegazioak, xehetasun-azterketa bat ez baita tresna egokia horiei erantzuteko, eta, zehazki, honako hauek:

- Krafft enpresaren instalazioak lekuz aldatzea: eraginpeko enpresaren instalazioen lekualdaketak eremuren urbanizazio-kargen parte izan beharko du, eta karga horiek dagokion JUPean islatu beharko dira; izan ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 152. artikulua arabera, dokumentu horrek ezarri beharko ditu jarduketa integratua gauzatzeko zehaztapen juridikoak, teknikoak eta ekonomikoak, bai eta egin beharreko obra guztiak eta urbanizazio-kargak ere.

- Harri-lubetaren kontserbazio-egoera: Xehetasun-azterketa ez da tresna egokia urbanizazio-elementu baten kontserbazio-egoera tratatzeko

3.- Behin betiko izaeraz onestea LAUTABI SUSTAPENAK SL enpresaren izenean diharduen SESTRA Ingeniería y Arquitecturak. Andoingo Hiri Antolamenduko Plan Orokoreko AIU 37-KRAFFT (AI.37.I) hiriguneari dagokion Xehetasun-azterketaren, SESTRA Ingeniería y Arquitecturak 2023ko martxoan idatzia, ondorengo baldintza hauekin:

- Ura Ur Agentziak egindako txostenaren arabera, inola ere ezin dira banakako konponbideak baimendu hiri-lurzoruetan garapen berriak egiteko isurketak kudeatzeko. Beraz, antolamendu honen xede diren obrak prekarioan baimenduko dira kolektoreko obrak egin arte eta obra horiek Uraldeko HUAra konektatuta egon arte, eta ezingo da isurketarik sortu.

- Hiriko drainatze-sistemei dagokienez, adierazten da urbanizazio-proiektuak urbanizazioaren gainean eduki beharreko drainatze jasangarriko sistemak barne hartu beharko dituela.

- Era berean, gogorarazten da obren sustatzaileak administrazio hidraulikoaren baimena lortu



beharko duela alde zurratik obrak egin ahal izateko.

4.- Behin betiko onespenez erabaki hau, aipatu Xehetasun-azterketa, hirigintza-araudiarekin eta ordenantzekin batera, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

5.- Erabaki hau jakinaraztea LAUTABI SUSTAPENAK SL enpresaren izen eta ordezkapenean jarduten duen SESTRA Ingeniería y Arquitecturari, Naiara Erauso Sanz andreari, Krafft SLren izenean eta ordezkaritzan, nola baita ere administrazio-espeditantean interesatu gisa agertzen diren beste guztiei. Jakinarazpenean azalduko zaie, halaber, administrazioarekiko auzi-helegitea aurkez dezaketela Bilbon dagoen Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Aretoan bertan adieraziko den epearen barruan.

7. Lanpostuen Zerrenda aldatzea.

Lanpostuen zerrenda da Udaleko pertsonal politikarako oinarrizko dokumentua, hori baita Udalak bere barruko egiturak arazoibideratzeko eta antolatzeke erabiltzen duen tresna, langileria premiak erabakiz, lanpostu bakoitza betetzeko beharrezkoak diren eskakizunak definituz eta lanpostu horiek sailkatuz.

Horrenbestez, lanpostuen zerrendak dinamikoa izan behar duenez eta udal antolaketan planteatzen diren egoera desberdinei erantzun behar dienez, proposamen honen bidez planteatzen diren aldaketak, balorazioa onartzerakoan jaso ziren talde aldaketak dira.

Ikusirik Langileria eta Prebentzioko Administrazio Orokorreko Teknikariak 2023ko martxoaren 21ean emandako txostena.

Hori guztia dela-eta, komitearen esanak entzun ondoren eta Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2023ko martxoaren 28ko bileran emandako aldeko irizpena.

Verdasco jaunak, langileria, antolakuntza eta barne araugintza zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“La relación de puestos de trabajo es el instrumento que el ayuntamiento tiene para racionalizar y ordenar sus estructuras internas, y en este caso, la propuesta recoge incorporar el grupo de clasificación tipo B para aquellas plazas que la valoración de puestos de trabajo estableció aplicar este grupo de clasificación, pero que hasta hasta ahora no se ha podido incorporar a la RPT. No está regulado.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Lanpostuen Zerrendaren eta Plantila Organikoaren aldaketa, ondoren zehazten den moduan:

- Talde aldaketak sartzea

2.- Plantila Organikoaren eta Lanpostuen Zerrendaren aldaketa argitara ematea GAOn, bat etorritz Funtzio publikoko legeak xedatutakoarekin.

8. Bastero Kulturgunearen, Ondarreta kalearen eta Kale Nagusiaren artean dagoen espazio publikoa “Plaza Morea Andreurdiñarena” izendatzea.

Ikusirik Bastero Kulturgunea, Ondarreta kalea eta Kale Nagusiaren artean dagoen espazio publikoa *Plaza Morea* izendatzeko hasierako izaeraz onartzen duen 2022ko otsailaren 24ko Osoko Udalbatzaren erabakia.

Kontuan izanik jendaurrean egon den bitartean, Garazi Kamio Anduaga andreak alegazioa aurkeztu zuela 2022ko apirilaren 4an.

Ikusirik Berdintasun teknikariak 2022ko maiatzaren 19an eta 2023ko martxoaren 13an egindako txostenak.

Ikusirik Euskara teknikariak 2022ko maiatzaren 20an eta 2023ko martxoaren 14an egindako



txostenak.

Ikusirik, baita ere, 2022ko urriaren 13an udaletxe honetan jaso genuen Euskaltzaindiaren txostena.

Ikusirik, azkenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna Batzordearen 2023ko martxoaren 16ko irizpena.

Romero andreak, emakumeen eta gizonen berdintasuneko zinegotzi ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kaixo, arratsalde on guztioi. Para empezar, lo que me gustaría decir como responsable del departamento es que me hubiera gustado traer este último paso en este procedimiento antes, pero, por diversas circunstancias, no ha sido posible.

“Como todos sabemos aquí, en esta corporación, este procedimiento empieza con la aprobación inicial en pleno de 2022. A la espera de recibir el informe desde Euskaltzaindia, entre medias se recibe una alegación por parte de una ciudadana a la que se le contesta, en función de la información que se tiene en ese momento. El informe de Euskaltzaindia llega al 13 de octubre, informe no vinculante, en el que se determina que es válido el nombre que se había elegido en un principio como el de Andreurdiñarena plaza, una vez recibido ese informe y habiéndolo estudiado desde el departamento, creímos necesario volver a hacer unas consultas tanto jurídicas como técnicas para sopesar las posibilidades de aunar los dos nombres., que era la intención primera desde el departamento.

“En su día es verdad que, y eso lo puedo asumir yo como error mío o como lo he entendido yo, como un mal entendido mío, entendí que no se podían dar los nombres de ahí que se decidiera entre uno y otro. Por eso se trajo en un inicio la denominación de Plaza Morea. Pero con el nuevo escenario, decidimos hacer esas consultas para ver si se podían aunar los dos nombres. Una vez estudiado todo esto, en comisión del 16 de marzo se vuelve a llevar la nueva propuesta, con la justificación que está recogida en el dictamen. Y en ese sentido también me gustaría dejar también constancia de que ese espacio público, que se pretende ahora nombrar como Plaza Morea Andreurdiñarena, ha sido un emplazamiento clave durante muchos años, a la hora de la celebración del acto central en las campañas del ocho de marzo, y que en los últimos meses, pues, ya se había dado un uso social al nombre. Precisamente también, señalar que ya se hizo uso de ese nombre denominación en el último acto ciudadano que se celebró el día cuatro de marzo dentro de la programación del ocho de marzo. Y entonces, en base a todo esto, pues se trae esta propuesta hoy a este pleno. Gracias.”

Jarraian, Mujika andreak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on. Guk duela urtebete aipatu genuen, nolabait ere, guretzako oso pozgarria dela emakumeen espazioak izendatzea, izugarritzko garrantzia daukala, baina oso deigarria egiten zaigu etengabe ari garenean emakumeen parte hartze soziopolitikoak aipatzen, neurriak hartzen, kontratu txikiak onartzen, prozesu horiek egin daitezzen. Martxoak zortziko eta emakumeen aldeko adierazpen guztietan aipatzen dugu izugarritzko garrantzia daukala parte parte hartze horrek. Eta duela urtebete prozedura hasi zenean, hain zuzen, hausnarketa hori egin genuen hemen. Oso pozgarria zela erabakia, baina ez genuela modua konpartitzen, iruditzen zaigulako zerbait izateko, sentitu behar dela gurea eta batez ere emakumeok badugula zeresana lekua eta izenaren inguruan eta prozedura hori ez zitzaigula gustatzen.

“Egia da duela urtebete hasitako prozedura honetan egon dila beste 11 deialdi Berdintasun Saitetik. Eta egia esan harritura gaude nola ez didan baliatu izan ditugun eremu antolatuak, batetik, kontrasterako, kontuan edukita andoaindar emakume batek egiten duela alegazioa gainera, nabarmenduz ba izenetan ere badaukala garrantzia, bi izen propioak erabiltzen direnean normalean batek galtzen duela esanahia, ba guzti hori da emakumeon gure egitekoa ere, identifikatzeko ditugun ezaugarriak edo izenaren kasuan.

“Eta deigarria da alegazio bat egonik eta ikusita iritzi ezberdinak egon daitezkeela, behintzat beraiekin kontrastatu edo iritzi bilketa bat egiteko. Hori esanda, batzordean ere esan genuen, pozgarria noski, eta gu izendatzearen eta espazioak irabaztearen alde gaudela, baina prozedura parte-hartzailea bultzatu nahi baldin badugu, ez dugu konpartitzen eredu hau eta beraz, abstenitu egingo gara.”

Berriro ere, Romero andreak, hartu du hitza, honakoa erantzuteko:

“Yo simplemente señalar qué proceso participativo hubo, de hecho, he traído aquí, la relación de distintas reuniones y distintos llamamientos que se hicieron durante todo el proceso. Mails que se



mandaron, posibilidades de votar tanto al logo como al nombre. Por lo tanto, proceso participativo hubo, que no se comparta, ese proceso concreto, lo puedo llegar hasta entender, pero proceso participativo hubo. Yo creo que lo importante aquí hoy es señalar que a día de hoy hay cinco, si no me equivoco, cinco espacios públicos con nombre de mujer, y que con este, con este nombramiento, se aumentaría ese ese número. Y creo que toda la Corporación en pleno de este Ayuntamiento, está satisfecha con esta propuesta.”

Jarraitzen du, Mujika andreak, esanez:

“Duela urtebeteko plenoa ikusten badugu hasieratik bukaerara, bileren deialdiak, deialdia, proposamenak ere, emakume batek egindako proposamena eraman zuen bilera batetara eta esan zitzaion proposamena jada bazegoela eginda, eta aktan dago jaso, duela urtebeteko bideoan ikusi dezakegu. Beraz, egon zaitezke oso pozik eta errespetagarria da.

“Zu ni bezain ongi badakizu urrats horien ondoren etorri zen prozesua zerbaitegatik etorri zala eta aurtengo dinamika beste modu batera etorri dela, emakume horiek eskatu dutelako benetazko parte hartze bat izatea. Eta parte hartze hori beraiek bultzatua izan da. Nik bezain ongi dakizu, ze nirekin egon zara bilera horietan, eta beraiek egin zuten eskakizun bat da, ekimen hori eta gero esanez ez zutela izan parte hartzeko aukerarik, beraz, ba bakoitzak badauka neurtzeko modua.”

Romero andreak, erantzuten du:

“Yo no me quiero repetir, están aquí las fechas, los mails, y los plazos para contestar. Si no se contesta y el procedimiento se sigue, se sigue adelante. Lo que no puede ser es que, después de una reunión en la que se manda las propuestas, el nombre que ha salido elegido, incluso se adjunta el informe, ya que se ha solicitado al Departamento de Euskera, lo tengo aquí, y nadie contesta nada y, claro, luego venimos a proponer otro nombre, cuando ya está decidido. Pero claro, ahora queremos decir que no hemos dejado participación. De verdad que yo no quiero entrar en ..., creo que no es un tema de discusión. Yo creo que tenemos que estar satisfechos de que haya un espacio público más en Andoain con nombre de mujer, y que en ese sentido se tiene que seguir por ese camino.

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

1.- Bastero Kulturgunearen, Ondarreta kalearen eta Kale Nagusiaren arteko espazio publikoa “Plaza Morea Andreurdiñarena” izendatzea, izen horrek berdintasun-arauetan eta hirigintza-neurrietan ezarritakoa betetzen baitu.

2.- Espediente osoaren kopia bidaltzea EAE-ko Izendegi Geografiko Ofizialaren gaineko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzari, apirilaren 5eko 41/2022 Dekretuaren ezarritako prozedura osoa betetze aldera.

3.- Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean izenpetzen denetik aurrera izango da ofiziala, 179/2019 Dekretuaren 45.6 artikulua araber.

4.- Erabakia Euskara Lansailari jakinaraztea.

5.- Behin Izendegia Euskal Autonomia Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialan idazpetzen denean, dagokion iragarkia eta aipatutako izendegiaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Andoingo Udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren webgunean argitaratzea, eta Andoingo Udaleko errolda eta erregistro guztietan onaturiko toponimo ofizialduak jasotzea.

6.- Halaber, eta behin Izendegia Euskal Autonomi Erkidegoko Izendegi Geografiko Ofizialean idazpetzen denan, izendegi berriak nolabait eragiten dien erakunde guztiei jakinaraztea (Jabetza Erregistroa, Katastroa, Posta Bulegoa, Estatistikako Institutu Nazionala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketa Departamendua, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Barne Ministerioa, konpainia elektrikoak, gasekoak, telefoniakoak eta abar), baita dagokien Udaleko lansail guztiei ere, behar diren aldaketak egin daitezzen. Era berean, erabakia jakinaraztea Udaleko Hirigintza eta Ingurumen lansailari, dagozkion seinaleztapen lanak egin ditzan eta Estatistika lansailari ere, Biztanleen



Erroldan dagozkion helbide-aldaketak egin ditzan.

9. Andoingo hautagaitza onartzeko mozioa, Haurren Hiri Lagun gisa aitortzeko deialdian parte hartzeko, hautagai gisa, onartzeko proposamena.

Kontuan hartuz Andoingo Haurrak Ondo Tratatzeke Tokiko Plana.

Kontuan hartuz UNICEFek egindako proposamena, Andoingo udalerria Haurren Adiskide Hiria dela aitortzekoa.

UNICEFekin konpromisoa sinatu da haurren politikak tokiko mailan bultzatzeko, aintzatespenerako lehen urrats gisa.

Kontuan hartuz Haurren Hiri Adiskideren aintzatespena AITORTUA izateko betekizuna, UNICEFen aplikazio-deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Ikusirik, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2023ko martxoaren 21eko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hartu du hitza, honakoa esateko:

“Kasu honetan, 9. eta 10. puntuak elkarrekin esplikatuko ditut, azkenean elkarrekin doazelako, nahiz eta gero noski ba bi bozketa egin beharko ditugula.

“Decía, antes de nada, que vamos a explicar los puntos 9 y 10 conjuntamente, porque están relacionados, aunque luego, lógicamente, las votaciones habrá que hacerlas por separado.

“Dakizuenetz, 2019 urtean Andoingo herriak haurrei tratu ona ematearen aldeko herria izan zezan, aurrerapausoak egon gara ematen, eta batez ere haurrentzako tratu onaren aldeko tokiko plana martxan jarri zen. Batez ere azpimarratzekoa da plan hau umeek eta nerabeek egindako plana izan dela, haur eta nerabeek haiek zuzenean aurkeztu zigutena 2022ko apirilaren 29an.

“Lanketa hori egiteko eskola guztiak parte hartu zuten. Baita ere 2022ko azaroaren 22an, pleno honetara ekarri genuen tokiko haurren politikak bultzatzeko konpromisoa eta aho batez onartu egin zen. Orain proposatzen dena konpromisoren jarraipena da. Proposatzen duguna da Andoain hautagai izateko, eta 10. puntuan, aitortua izateko aurkezpena egitea proposatzen da, hori luzatzea.

“Decíamos que estos pasos que estamos dando ya los comenzamos en en 2019, con la intención de que Andoain fuera una localidad que aboga por el buen trato a la infancia. Como consecuencia de eso, lo más importante vino el 29 de abril de 2022 con la aprobación del Plan Local por el Buen Trato a la Infancia, plan que fue realizado por los niños y niñas y adolescentes de Andoain en un trabajo comunitario y conjunto llevado a cabo por todos los centros escolares y que ellos mismos nos vinieron a presentar en ese pleno que tuvimos.

“Como consecuencia de eso también, ya en el 22 de noviembre de 2022 trajimos el compromiso de impulso de políticas de la infancia ha marcado por Unicef que hoy culminaría con, por un lado, la presentación de Andoain como candidato a ser reconocido como ciudad amiga de la infancia. Y en el punto 10º la concesión de la condición de reconocido como ciudad amiga de la infancia.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

